

Unidxs por un regreso pactado y seguro. Osasuna bermatu eskoletan

Nafarroako irakaskuntzan ordezkartzat dugun sindikatu guztiok, publiko zein itunpekoek, uste dugu Nafarroako Gobernuak 2020-21 ikasturtearen hasierarako aurkeztu duen prebentzio eta antolaketa protokoloaren zirriborroak ez diola erantzun nahikoa eta egokia ematen ikasgeletara modu seguro eta eraginkorrean itzultzeko erronkari.

- Protokoloaren zirriborro hori ez da adostu eta ez dira kontuan hartu hezkuntza-komunitateko eragileen ekarpen nagusiak. Horregatik uste dugu premiazkoa dela negoziazio-foro bat sortzea, zirriborroaren edukia hobetzeko.
- Gure ustez, proposamen honekin ez da bermatzen irailean ikasgeletara modu seguruan itzultzea, eta ez du edozein hezkuntza-prozesutan funtsezko den inolako irizpide pedagogiko eta emozionalik aurreikusten.
- Departamentuak osasun-irizpideak baino ez ditu kontuan hartzen, eta, gainera, aldakorrak dira eta ezin dira aldez aurretik ezagutu. Modu honetan segurtasuna eta irakaskuntzaren eraginkortasuna bermatzeko (ratioak jaistea, plantilla handitzea, espazioak planifikatzea, materiala hornitzea...) beharrezkoa den inbertsioa saihestu nahi du.
- Hezkuntza Departamentuaren proposamenak, egoera horren kudeaketari dagokionez, ikastetxeetako zuzendaritzei eta irakasleei beraiei egotzi die bere gain hartu beharko lukeen erantzukizuna. Horrela, zuzendaritza eta irakasleei ez dagozkien funtziak bizkarreratzen zaizkie, beren gehiegizko lan-karga areagotzen dute eta ondorio penalak ekar ditzakeen egoera batean kokatzen ditu.
- Egungo esparruak, praktikan, irakasleen, ikasleen eta hezkuntza-komunitate osoaren baldintzen okertze kritikoa dakar.

Uste dugu oraindik denbora badagoela Hezkuntza Departamentuaren proposamena nabarmen hobetzeko. Baina, horretarako, premiazko da negoziazio-mekanismoak abian jartzea, ikastetxeetara segurtasunez eta bermeekin itzultzeko erronkari erantzun bideragarri eta integrala emateko.

Iruñean, 2020ko ekainaren 26an.

Unidxs por un regreso pactado y seguro. Osasuna bermatu eskoletan

Unidos todos los sindicatos con representación en la enseñanza navarra, tanto pública como concertada, consideramos que el borrador del protocolo de prevención y organización para el inicio del curso 2020-21 presentado por el Gobierno de Navarra no da una respuesta suficiente y adecuada al reto de un regreso seguro y eficiente a las aulas.

- Este borrador de protocolo no ha sido consensuado ni se han tenido en cuenta las aportaciones de los diferentes agentes de la comunidad educativa. Es por ello que consideramos urgente la creación de un foro de negociación que mejore el contenido del borrador.
- Consideramos que con esta propuesta no se garantiza una vuelta segura a las aulas en setiembre y que no contempla ningún tipo de criterio pedagógico y emocional, que es fundamental en cualquier proceso educativo.
- El Departamento se escuda en criterios exclusivamente sanitarios, que además son cambiantes e impresivibles, para no realizar las inversiones necesarias que permitan tomar medidas que garanticen la seguridad y la eficacia docente que nuestro alumnado merece (bajada de ratios, aumento de plantilla, planificación de espacios, dotación de material...).
- La propuesta del Departamento de Educación traslada la responsabilidad que debiera asumir, en cuanto a la gestión de esta situación, a las direcciones de los centros y al propio profesorado. Con ello se les adjudica unas funciones que no tienen por qué asumir, incrementan su ya excesiva carga de trabajo y les sitúa en un escenario que podría conllevar consecuencias incluso penales.
- El marco actual supone en la práctica un empeoramiento crítico de las condiciones del profesorado, el alumnado y el conjunto de la comunidad educativa.

Consideramos que aún hay tiempo para mejorar sustancialmente la propuesta del Departamento de Educación, aunque para ello es urgente que pongamos en marcha los mecanismos de negociación para hallar una respuesta viable e integral al reto de una vuelta a los centros segura y con garantías.

Pamplona, 26 de junio de 2020,